

Kultura

lurretako jaietan joko dute, bihar, Asier Baraiazarra durangarrak eta Baraia Band taldeko kideek > 11



Azaroan Bizkaibuseko autobus zerbitzua Izurtzako eta Mañariko geralekuetara iritsiko da

Bilbotik Durangorako linea baten luzapena izango da. Urtetan herritarrek egindako eskaera errealitate bihurtuko da

Bizkaibuseko autobus zerbitzua heltzen ez den herri bakarrene-takoak dira Izurtza eta Mañaria. Baina egoera hori aldatu egin-goda azarotik aurrera. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak asteon adjudikatu ditu Bizkaibuseko linea berriak. Bilbotik Durango-

rako autobus linearen luzapena eginda, autobusa bi herri haue-tara helduko da. Hala ere, oraindik ez dago argi zein izango den linearen ordutegia. Azarora arteko epea dute ordutegiak antola-tzeko. > 6

Ines Etxegibel, DRTko gizonen gidari

Espainiako selekzioa entrenatu eta gero, etxera itzuli da Etxegibel. Kirolean lorpen txiki bat, parekidetasunera bidean. > 15



EGYRANGA S.L.
PINU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284

Abadiño > 2

Osakidetza egingo da Traña-Matienako anbulatorioaren eraikineko gastuen kargu

Zornotza > 3

Astelehenean Madrilen batuko dira Barloworldeko langileak

Berriz > 4

Iturriza eta Geltoki kaleak oinezkoentzat egokituko dituzte

Iurreta > 8

Arriaundiko pastelgintza sailean subrogazio orokorra exijitu dute

Herririk herri

Matienako anbulatorioko eraikinaren gastuen kargu Osakidetza egingo da

Udalaren izenean egon dira eginda Traña-Matienako eraikinaren eskriturak



Irisgarritasuna hobetzeko, arrapala bat atondu dute anbulatorioaren sarreran.

ABADIÑO Itsaso Esteban

Udal gobernu taldeak komunikabideetara bidali duen oharrean adierazi duenez, Traña-Matienako osasun zentroa Osakidetza izenean eskrituratzeko akordioa lotu du Abadiñoko Udalak osasun zerbitzuagaz. Abadiñoko Udalak azaldu du anbulatorioa dagoen eraikineko komunitate gastuak Abadiñoko Udalak ordaindu dituela orain arte; 23.000 euro bideratu ditu gastu hori ordaintzera. Lotu duten akordioaren arabera, “hemendik aurrera Osakidetza ordainduko ditu osasun zentroaren eraikineko gastu guztiak”.

Orain arte Abadiñoko Udalaren izenean erregistratuta egon da Traña-Matienako osasun zentroa, eta Abadiñoko gobernu taldeak azaldu duenez, Osakidetza udalagaz zeukan 23.000 euroko zorra berdindu ostean egin dute akordioa. Batetik, osasun zentroaren irisgarritasuna ho-

betzeko obrak egin dituzte: arrapala atondu dute, gurpil aulkiak eta karroen sarbidea errazteko. Bestetik, medikuntzako tresneria berria ere erosi dute; kirurgia txikiko zentroa hobetzeko hainbat tresna berri erosteko, 26.000 euroko inbertsioa egin du Osakidetza.

26.000
euroko inbertsioa egin dute Traña-Matienako anbulatorioan

Pozik agertu da Jose Luis Navarro alkatea: “Gauza izan gara Osakidetza inbertsio handi bat egin dezan lortzeko, horrek, zerbitzu kalitateari dagokinez, herritar guztiari eskainiko dien onurarekin”.

Kiderik gehienak berritu ditu gazte asanbladak

Gaztetxea herriko gazteen iritzia plazaratzeko bozgorailu izatea da aurrera begirako lan ildoetako bat

OTXANDIO J. Derteano

Orain asteburu bi gazte asanbladako kideak eta Otxandio-ko hainbat gazte egun osoko jardunaldian batu ziren, gaztetxearen eta gazte asanbladaren etorkizunari buruzko hausnarketa komuna egiteko. Guztira, hogeitaz bat lagun batu ziren. Elkar ezagutu ostean, “giro onean” garatu zen jardunaldia gazte asanbladako kide den Oihana Sanchezen esanetan.

Azken aldiaren beherantz egin ten hasita zegoen gazte asanblada berpiztea zen helburuetako bat, eta lortu dute. Alde batetik, gazte kontseilua zein bestelako egiturak baztertu, eta gazte asanbladagaz bakarrik aurrera

jarraitzea erabaki dute. Bestetik, aurrerantzean gazte asanblada osatuko duten kiderik gehienak (hamabitik bederatzik) berriak izango dira: 20 urte edo

Gaztetxeari buruzko hausnarketa egiteko jardunaldian hogeitaz bat lagun batu ziren

beheragoko gazteak. Gaztetxea beharrezko ikusten dute, eta bere funtzioetako bat “gaztetxea Otxandio-ko gazteen ahotsa entzuteko gune eta baliabide” bihurtzea da.

Euskaltegiko matrikulazio kanpaina martxan da

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko euskaltegia izena emateko matrikulazio kanpaina zabalik dago urriaren 2ra arte. Ermuko AEK-ko irakasleak dira Mallabian euskara eskolak ematen dituztenak. B1, B2 eta C1 mailak eskaintzen dituzte. C2 aurrez aurre egiteko aukera Ermuan eskaintzen dute. Ordutegiari dagokionez, ikasleek goizetan, 09:30etik 11:30era, eguerdian 14:30etik 16:00etara eta arratsaldean 18:30etik 20:30era joan daitezke. Gainera, txandaka aritzeko aukera ere eskaintzen dute. Eskolak Mallabiko kultur etxean eskainiko dituzte, eta udalak diruz lagunduko ditu. Informazio gehiago: kaltxan-go@ae.org eta 943 171 940.

Antzinako autoen erakusketa egingo dute

Domekarako antolatu dute autoen erakusketa

ZALDIBAR I.E.

Euskal Herria kalea ohiko trafikoari itxiko diote domekan. Antzinako autoen erakusketa egingo dute, eta 50 urte baino gehiagoko autoak izango dira egun horretan Zaldibarko kale nagusian protagonista. Udalak jakinarazi duenez, 10:00etatik 18:00etara itxita egongo da Euskal Herria kalea. Herriko kaleetan zehar ere ibilaldira egingo dute antzinako autoekin, 13:00etatik aurrera, eta, bazkalostean ere, Eusal Herria kalean egongo dira ikusgai.

Erakusketaren antolatzaileek adierazi dute gutxienez 50 urte dauzkaten hogeitaz auto eka-rriko dituztela jabeek Zaldibarrera. Besteak beste, 95 urteko

auto bat ikusteko aukera ere egongo da, domekan, Zaldibarran. Zurezko gupil-hagunak dauzka ia duela mende bateko auto horrek.

50 urte baino gehiagoko autoak izango dira domekan, Zaldibarko kaleetan, ikusgai

Udalak jakinarazi duenez, 10:00etatik 18:00etara itxita egongo da Euskal Herria kalea

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2014ko irailaren 19a, 12. urtea - 558. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urikiaga Egidazu.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaldua Fuertes, Lehiar Elorriaga.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Astelehenean, Madrilen batuko dira Barloworldeko langileak

Barloworld enpresak Espainian dituen lantegi guztietan, tartean Zornotzan, greba egingo dute astelehenean, eta Madrilgo egoitza zentralera joango dira



Zornotzako lantegiko beharginak protesta ekitaldi batean.

ZORNOTZA J. Derteano
Barloworld Finanzauto enpresak 177 langile kaleratzea aurrei-

kusten duen lan kontratuaren etendura espedienteak aurkeztu du. Zazpi kaleratzek enpresak

Zornotzan duen lantegiari eragiten diote; beste hiruk Logroñon eta Iruñean dituzten delegari-

tzei. Astelehenean amaituko da zuzendaritzak espedienteak Espainiako administrazioan aurkezteko epea. Beraz, oraindino negoziazioetan dabiltzala, sindikatuak greba orokorrera deitu dute astelehen eta martitzenerako. Egun horietan langile guztiak enpresak Madrilen duen egoitza zentrolean batzea da helburua.

Zornotzako lantegiak bost ordezkari ditu enpresa komitean, denak CCOO sindikatukoak. Gaur langileekin batzeko asmoa dute, egoera zertan den azaldu, eta asteleheneko greba deialdiaren inguruan bozkatu dezaten. “Aurretik egindako batzar batean 58 langiletik 40k babestu zuten greba deialdia”, adierazi du CCOO sindikatukoko Unai Marzanak.

Enpresak 9,2 milioi aurreztu behar dituela esan diete, eta kopuru hori soldata gastuetatik atera gura dute. Sindikatuen hasierako helburua kaleratzeak saihestea zen. Alternatiba bat baino gehiago aurkeztu dute.

Esaterako, langile guztien arteko txandakako erregulazio espedienteak proposatu dute, kaleratzeak saihesteko. Marzanaren esanetan, alternatiba horren bidez, enpresak aurreztu gura duen diruaren “bikoitza” aurreztu daiteke, baina zuzendaritzak ez du onartu: “Kaleratzeak egon behar direla diote, bai ala bai”.



“Kaleratzeak egon behar direla diote, bai ala bai”

Unai Marzana (CCOO)

Egoera hori barneratuta, sindikatuen helburua da kaleratze traumatikoak ekiditea: 63 urtekoentzat erretiro aurreratuak eta 59 urtetik gorakoentzat errelebo-kontratuak lortzea, adibidez. Zornotzan lau langile daude baldintza horietan. Proposamenak aintzat hartuta ere, zuzendaritzak “100 bat langile kaleratzeko beharra ikusten du”. Asteburuan izango dute negoziazioetarako azken aukera.

Tasak eta zergak bere horretan bigarren urtez

2015eko zergak eta tasak izoztea erabaki dute

ZORNOTZA J.D.
Zornotzako Udalak datorren urterako tasak, zergak eta prezio publikoak aurtengo kopuruetan mantentzea erabaki du. Horrela, bigarren urtez jarraian izoztu dituzte.

Izan ere, nahiz eta tasa edo zergarik ez igo, udaleko aurtengo diru-bilketa iazkoa baino handiagoa izaten ari dela adierazi dute udal ordezkariak. Orain arte, uraren tasan iaz epe honetan baino %3,6 gehiago batu dute; zaborretan %2,12 gehiago; eta ibilgailuen gaineko zergan %1,15 gehiago. Erabaki

hori hartu dute “herriko jarduerara eta iniziatiba ekonomikoak errazteko eta familiei presio fiskalik ez gehitzeko”.

Ogasun Batzordean alderdi politiko guztietako ordezkariak proposamenagaz ados agertu zirela aipatu zuen Iker Basagoiti EAJko zinegotziak. EHBilduk hori gezurtatu egin du: “Gai hori ez zegoen 2014ko abuztuko Ogasun Batzordeko gai-zerrendan eta, ondorioz, ez zen diktamen edo erabakirik egon”. Gai “garrantzitsu” hori gai-zerrendan joan behar zela uste dute eta “ez galdera-eskaeren txandan”.

Autzaganeko obrek iturburuei eragin dieten galdetu dute

ZORNOTZA J.D.
Pasa den martitzenean udalbatzarra egin zuten Zornotzan. Galderen eta eskarien puntuan, EH Bilduko Fernando Larri-naga zinegotziak Autzaganeko obrek eragindakoa izan daitekeen “ingurumen arazoa” mahaigaineratu zuen. Larri-nagaren berbetan, baliteke lan

horiek gunee horretan zeuden ur iturburuei eragin izana. Izan ere, Larrinagaren esanetan, lurpeko ur naturala erabiltzen duten (abereentzat, ureztapenerako...) Autzaganeko baserri batzuetan orain ez dago urrik: “Eta urte askoan gunee horretan eman den aldaketa bakarra tunela eta tuneleko lanak dira”.

David Latxaga alkateak adierazi zuen orain egun gutxi jakin zuela horren berri. Aldundia eta Ura Uraren Euskal Agentzia laster batzartzekotan direla esan zuen; udala informazioa batzen egongo da batzar horretan, lanean ez duelako eskumenik.

Aste bian prest egon daiteke aparkaleku berria Ixerren

ZORNOTZA J.D.
Nafarroa zentroan, Betarragane inguruan eta Ixer auzoan doako aparkalekuak sortzeko lanak aurrera doaz apurka, zein bere denboran eta bere berezitasunekin. Ixerreko aparkalekuko obra zibila “ia

Obra zibila amaitu ostean, programa informatikoak eta hesiak jartzea falta da

amaituta” dagoela adierazi du David Latxaga alkateak: “Sartu-irtenak kontrolatuko dituzten hesiak, kamerak eta programa informatikoa jartzea falta da”. Ondorioz, bi asteren ostean 146 plaza izango dituen aparkalekua erabilgarri egon daitekeela kalkulatu du.

Nafarroa zentroko aparkalekua lurrazpian dago, eta, horregatik, lanak Ixerrekoak baino “konplikatuagoak” direla adierazi du. Hala ere, urriko lehen hamabostaldian erabilgarri egon daitekeela dio.

Azkenik, pasa den martitzenean udalbatzarrean 192.202 euro bideratu zituzten Betarraganen egin gura duten aparkaleku berrira. Aste bi barru lanak esleitzea da asmoa.

Euskararen ordenantza onartzeko eskatu dute

EH Bilduren esanetan, dokumentua osatuta dago

ZORNOTZA J.D.
Joan zen asteko herri batzar batean, EH Bilduko kideek azken legegintzaldian euskararak Zornotzako udalean izan duen ibilbideari buruzko azalpenak eman zituzten. 2011n legegintzaldia hasi zenetik euskararen ordenantzagaz lanean hasteko konpromisoa hartu zuten, baina “2013ko ekainean jaso genuen EAJren lehen erantzun ofiziala”. 2014an igorri zuen EAJk

lehen dokumentua, eta EH Bilduk ekarpenak egin dizkio. “Dokumentua osatuta dago, eta presioa egiten ari gara, behin betiko onarpena eman, eta ordenantza praktikan ikusteko”.

Gogoratu zutenenez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia iraungita dago. EH Bilduk hurrengo hilabeteetan bilerak egingo ditu: “Hainbat arlotan diharduten partaideekin plana osatu, eta garatzea da asmoa”.

TOKIZ ALDATU GARA
(betiko dendatik 5 metrora)

Barrenkalea, 28 | Tel.: 946 817 918

Iturritza eta Geltoki kaleak oinezkoentzat egokituko dituzte

Geltokiaren zati batean lehentasuna izango dute oinez doazen herritarrek



Lanen ostean, oinezkoak ezingo dira trenbidetik pasatu hesiak behean daudenean.

BERRIZ Amaia Ugalde Berrizko erdigunean urbanizazio lanak hasi dituzte asteen, “irigarritasuna eta segurtasuna hobetzeko” asmoagaz. Iturritza eta Geltoki kaleak elkartzen diren gunean egingo dituzte lanak.

Geltoki kalean, tren geltokitik Iturritzako bidegurutzeraino, berrasfaltatu egingo dute bidea, altuera maila berean, oinezkoek lehentasuna eduki dezaten. Lurra maila berean egonda, oinezkoentzako gunea zabalagoa izango da, eta zutoinak egongo dira autoen eremua eta oinezkoena bereizteko. Or-

land Isoird Berrizko alkateak azaldu duenez, autoek noranzko bakarrean gidatu ahaliko dute obra egin eta gero. Kale horre-

Trenbidean, errepidearen bi aldeetan, oinezkoak pasatzeko lekua egokituko dute

tan dauden garajeetara sartzeko, beraz, Iturritzatik sartu barik, Zengotitabengoa kaletik sartuta egin beharko da bidea.

Trenbidean lau hesi ipiniko dituzte trena datorrenerako. Orain arte, hesiak bajatuta egon arren, pasabide batetik joan ahal ziren herritarrek, eta bide hori kendu egingo dute. Errepidearen bi aldeetan oinezkoak pasatzeko lekua egokituko dute, eta hesiak behean daudenean ezingo dira pasatu. Orain pasabiderik ez dagoen aldean, gainera, espaloia egingo dute, eta zebra bide bat ere bai, Iturritzan gora jarraitu ahal izateko.

Iturritza kaleko zati batean, Fonda tabernatik gora hurrengo bidegurutzerara arte, espaloia zabalduko dute, eta baita errepide

dea berrasfaltatu ere, zebra bide garaiak ipinita. Matza-Berriz-beitia zeharkalea oinezkoentzako kale bihurtuko dute, gainera.

Lanak lau hilean amaitzea espero dute; Iturritza ingurua aldatzeko beste bi fase egongo dira

Lanak lau hilean amaitzea espero dute. 238.000 euroko aurrekontua dute, eta, lehen fase honetaz gainera, Iturritza ingurua aldatzeko beste bi fase ere aurreikusi dituzte.

Terrazen legezk distantziak Espaloiak zabalduko direnez, tabernen terrazetarako leku gehiago egongo da aurrerantzean. Berrizko alkateak adierazi duenez, urbanizazio lanekin, “segurtasuna handitzeaz gainera, tabernetako terrazek eduki beharreko distantzia tartekak betetzea” lortuko dute.

Ur hornidurak elkartu

Bidean lanak egingo dituztela aprobetxatuta, Berrizko bi ur hornidurak batuko dituzte. Murgoitio Ur Patzuergoaren biltegitik hartzen dute ura, eta Berrizko goialdean Oiztik. Trenbide azpian ur hodiak elkartuko dituzte. “Horrela, Oizko ur horniduran arazoren bat badaukagu, partzuergokotik hartu ahal izango dugu ura”.

Legañon indusketa lanak egingo dituzte beste urtebetez

BERRIZ A.U.

Udan topatutakoa baloratu eta gero, datorren urtean ere Legañoako arkeologia lanekin jarraitzeko asmoa agertu dute Berrizko udal arduradunek. Orland Isoird alkateak azaldu duenez, Román Rodríguez lanen buruagaz berba egin eta gero, Legaño beste urtebetez indusketak egiteko diru-laguntza emateko asmoa du udalak.

Aurten hamazazpi hilobi aurkitu dituzte Legaño, eta hilerri zaharra ekialdean non amaitzen zen ere ikusi dute. Azken bi urteotan udalaren diru-laguntza baino ez dute izan indusketa lanak egiteko.

Informazio gunea

Nekropoliaren tamainari buruz eta hilobiratzeen gainean geroago eta informazio gehiago dago. Orain arte agertutakoari balioa eman, eta herritarren eskura zelan ipini pentsatzen dabiltzala azaldu du alkateak. Hilerriko hormak konpondu, teiltatu ipini, eta gune bat atondu gura dute: “Panel informatiboen bidez-edo daukagun informazioa transmititzeko bideak ipini beharko ditugu”. Hori guztia zelan formulatu pentsatzen dabiltzala azaldu du.

Kontuleku, familian euskaraz irakurtzeko

BERRIZ A.U.

“Liburuen bidez umeekin euskaraz gozatzeko esparrua”, hori da Kontulekuk izan gura duena. Iaz abiatu zuten ekimena, eta aurten ere, guraso eta ume, zapatuetan hasiko dira batzen liburutegian, 12:15etik 13:15era, ipuinak elkarrekin irakurtzeko. 3-4 urteko umeen guraso eskaldunek nahiz erdaldunek parte hartu dezakete ekimenean.



Udaleko Euskara Sailak antolatzen du Kontuleku; udaletxean eman daiteke izena.

Denbora egoki kudeatzen ikasteko tailerra hasiko dute urrian

ATXONDO Joseba Derteano

Atxondoko Lamiak elkarteak denboraren kudeaketa emozionala lantzeko eta memoria hobetzeko tailerra antolatu du. Urriaren 8an hasiko da, eta datorren urteko martxoaren 25era arte iraungo du; eskolak eguazteneko izango dira,

16:15etik 18:15era, udaletxeko udalbatzar aretoan.

Izen-ematea urriaren 1ean amaituko da; bazkideek 40 euro ordaindu behar dute, eta bazkide ez direnek 45 euro. Liburutegian egin daiteke izen-ematea.

Tailerrak denbora erabilgarriari ahalik eta etekinik handiena ateratzen ikasteko dira. Horretarako, eskola bakoitzean denboraren kudeaketa horretan eragiten duten barne zein kanpo faktoreak landuko dituzte. Memoria lantzeari dagokionez, memoria hobetzeko aholkuak emango dituzte.

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

katerin ardoak
inaki uribe

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com





Motorretan *nagusi.*

➤ EcoBoost motorra

Injekzio zuzen bidezko hiru zilindroko gasolina motorra. Banaketa aldakorra. Turbokompresorea. 100 kilometroko 4,7 litro baino ez ditu kontsumitzen. Zure lagunen begirada inbidiatsuak jasaten jakitea baino ez zaizu faltako. EcoBoost motorra: diesel batek duen onena, gasolina baten prezioan.

FORD FOCUS
12.990€



FORDKONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIOARLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama batez besteko kontsumo konbinatua 4,7tik 7,2 litroa 100 kilometroko. CO2 emisioa 109-169 g/km.

EcoBoost motorrak %20ra arte hobetzen ohiko motor baten kontsumoa. Focus Trend 1.0 Eco Boost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW) 5P paq. Int. eta paq. Style-ekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Ford.es

Azaroan Bizkaibuseko autobusa Izurtzara eta Mañarira helduko da

Bizkaiko Foru Aldundiak asteon adjudikatu ditu Bizkaibuseko linea berriak

DURANGALDEA M. Onaindia
Izurtzako eta Mañariko herritarren aspaldiko eskaeretako bat egia bihurtuko da azaroan: Bizkaibuseko autobus zerbitzua bi herrietara ailegatuko da. Zerbitzu hori heltzen ez zen Bizkaiko herri bakarrenetakoak ziren, eta hemendik aurrera zuzenean joan ahalko dute Bilbora. Izan ere, zerbitzua Bilbotik Durangorako linea baten luzapena izango da. Endika Jaio Mañariko alkateak balorazio positiboa egin du: “Herritarrak eskatu eta eskatu ibili ostean lortu da”. Baina, argi utzi gura izan du garraio zerbitzu duinaren arazoa ez dela guztiz konponduko.

Izan ere, oraindik ez dago argi zein izango den linearen ordutegia. Bizkaiko Foru Aldundiak aste honetan bertan adjudikatu ditu linea berriak, eta enpresek

Jaiok argi utzi gura izan du garraio zerbitzu duinaren arazoa ez dela guztiz konponduko

azarora arteko epea daukate zerbitzuak antolatzeke. Aurreproiektuan eguneko sei autobus proposatzen ziren, Bilborantz hiru eta Mañarirantz beste hiru.

Asteburuetan, ostera, autobusik ez. “Ordutegia txarra bada, jendeak ez du autobusa erabiliko”, ohartarazi du alkateak. Horregatik, zerbitzua mantendu dadila eta hobetu dadila lortzeko lan egingo dutela esan du alkateak.

Herritarrak “pozik”

Mañariko eta Izurtzako herritarrek “pozik” hartu dute zerbitzu berriaren albiste. Uzuri Unzalu mañariarrak azaldu duenez, urte askoan herritarrek egindako eskaria da hau. “Gazteentzat eta edadetuarentzat albiste ona da, beraiek direlako kotxerik eduki ez, eta autobusa hartzeko behar handiena dutenak”.



Izurtzan Bilborako autobusa hartu ahalko da azarotik aurrera.



EH Bilduko alkateak eta erabiltzaileak, Eusko Legebiltzarrean.

Gasteizerako linearen arazoa, Legebiltzarrean

Alkateek eta erabiltzaileek egoeraren berri eman dute

EH Bilduko Dani Maeztuk eskatuta, Gasteizerako linearen gaia aztertu zuten Eusko Legebiltzarrean, eguaztenean. Izurtzako, Mañariko eta Otxandio alkateak eta erabiltzaile batzuk euren egoera zein den azaltzera joan ziren. Ana Oregi sailburua Garraioaren Euskal Behatokiako presidentea ere bada, eta EH Bildukoek uste

dute koordinazio mahai horrek baduela zer esana: “Probinzien arteko arazo bategatik, herri batzuetan zerbitzu duinik barik gaude”, adierazi zuen Endika Jaiok. Arabako Foru Aldundiak esleitu du Durango-Gasteiz linearen kontratu berria, baina erabiltzaile gehienak bizkaitarrak dira; Durangaldekoak, hain zuzen ere.

Nekane Rozas erabiltzaile durangarrak berba hartu zuen, zelako egoera bizi duten azaltzeko. “Berdin digu eskumena norena den, ez gara alderdikerietan sartuko. Arazoa konpontzea gura dugu”.

Espainiaren eskumena

Linea berria Gasteiztik pasatu, eta Mirandaraino doa (Burgos). Horregatik, Oregik adierazi zuen Espainiako garraio arloak daukala orain eskumena. Hala ere, Garraioaren Euskal Behatokiaren gaia aztertzeke konpromisoa hartu zuen. “Adi egongo gara”, esan zuen Jaiok.

Azarorako Bitañoko uso paseen zozketa egingo du San Iurgik

Urriaren 3an izango da zozketa, 20:00etan, Argintxun

IZURTZA J.D.

San Iurgi ehiza eta arrantza elkarteak azaroan Bitañoko uso paseen guneak erabiltzeko zozketa egingo du urriaren 3an, 20:00etan, Argintxu elkartearen. Urriarako paseen zozketa orain aste bi egin zuten.

Zozketan parte hartu ahal izateko, eskaera orria entregatzeko epea gaur amaituko da, 20:00etan. Eskaera orriak Herriko Tabernan jaso daitezke, eta nortasun agiriaren fotokopiagaz eta telefono kontaktuagaz San Iurgik Bitaño auzoan (Mosolotokin) duen buzoian utzi behar dira.

Behin zozketa orokorra egin ostean, paseak zazpi egun joan aurretik batu beharko dira Ar-

gintxun, 19:00etatik 21:00etara. Paseak epe horren barruan batzen ez badira, eskaera egin duen lehen ehiztariari esleituko dizkiote urriaren 10etik aurrera.

laz sortu zuten San Iurgi elkartearen lehenengo biderari da Bitañoko paseak zozkatzen

San Iurgi ehiza eta arrantza elkarteak iaz sortu zuten hainbat izurtzarren artean, eta oraingo hau da elkarteak bere ibilbidetan egingo duen aurreneko zozketa.

Nagusien bazkariagaz amaituko dute Kultura Astea

GARAI M. Onaindia

Herriko nagusien San Migel elkarteak Kultura Astea antolatu du aste honetarako. Elkarteari izena ematen dion santuaren eguna da hilaren 29an, eta horren aitzakiagaz hainbat ekintzatan murgildu dira. Briska, tute eta mus txapelketak izan dituzte asteon. Gaur, gainera, tortilla txapelketa ere egingo dute arratsaldean. Domekan egingo duten bazkariagaz amaituko da Kultura Astea.

Etzi, beraz, 12:00etan batuko dira egunari hasiera emateko, hildakoen omenezko mezagaz. Gero, 14:00etan, Herriko Tabernan izango dute bazkaria. Ondoren, elkarteak bazkide zaharrenak –andra eta gizon– omenduko dituzte.

Euskaraz jolasteko aukera Zabu Zibugaz

3 eta 5 urte artekoei eta gurasoei zuzendutako ekimena da

MAÑARIA A.U. / M.O.

Gaur arratsaldean, 17:30etik 18:30era, euskara eta aisialdia elkartuko dituzte Mañariko plazan. Izan ere, euskaraz jolasteko aukera edukiko dute Zabu Zibu egitasmoaren eskutik. Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatzen du Zabu Zibu, eta, jolasak dinamizatuta, euskararen erabilera indartzeko helburua dauka. 3 eta 5 urte arteko umei eta gurasoei zuzendutako ekintza da. Familia giroko hizkuntza erabileran eragin gura du, beraz. Datuen arabera, Durangaldeko familien %61 gaztelaniaz mintzo da.

Arduradunen arabera, arrazoi ugari daude etxeko egoera hori sortzeko. Etxean edo gurasoen artean euskaraz berba egiteko ohitura falta da arrazoi

horietako bat. Bestalde, batzuetan gurasoek ez dute topatzen baliabide nahikorik umeekin euskaraz jolasteko. Zabu Zibuk eskaintzen dituen jolasak egoerari buelta emateko praktika berriak eskainiko dituzte.

Gurasoen eta umeen arteko euskararen transmisioa nora-

Jolasak dinamizatuta, euskararen erabilera indartzeko helburua dauka Zabu Zibuk

bide bikoa dela azaldu dute arduradunek. Horregatik, umeek euskaraz jolasteari garrantzia eman diote. Herririk herri dabiltza egitasmoagaz.



Egun bat Baqueren bizitzan

> BAQUE

Cafés Baqueko operazio eta kalitate departamentuetatik pasa eta gero, gure bigarren geldialdia departamentu komertzialean egin dugu, egunero hemengo kafea eta bes-telako produktuak ostalariei eskaintzeaz arduratzen den talde komertzialaren lana gertutik ezagutzeko.

Javier González, Bizkaiko eta Arabako ordezkari-komertziala, Durangaldeko 34 pertsonaz osatutako talde komertzial gaztea zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da.

• Zein da zuen eguneroko lana?

Cafés Baqueko departamentu komertzialak ostalaritzako bezeroak zaindu, produktuekin hornitu, eta aholkatu egiten ditu, eta, aldi berean, salmenta puntu bakoitzean gure produktu guztiek Baquek ezarritako kalitate parametro guztiak betetzen dituztela kontrolatzen du. Gainera, ostalariak dituen baliabide komertzialak (kafe-makina eta kafe-errotak) ezagutzen eta zaintzen dituen talde komertziala dugu, baita ekipamendu horien jazoerak eta matxurak konpon-tzen dituen gure SAT taldea ere.

• Zeintzuk dira Cafés Baqueko talde komertziala definitzen duten ezaugarriak? Beste modu batean esanda, zer da beharrezkoa familia honen parte izateko?

Gure talde komertziala urtetako esperientzia duten gazte gogotsuek osatzen dute. Bezeroari

arreta pertsonalizatu eta hurbilaren bitartez zerbitzu ezin hobea ematen diote, eta hori da gure kafe marka bereizten duen ezaugarria.

Kafeari, katilu erauzketa prozesuari eta edarien prestaketari buruzko ezagutzak, zein kafe-makinen eta kafe-erroten alde teknikoari buruzko ezagutzak zabaltzen jarraitzeko, Cafés Baqueren salmenta taldea etengabe prestatzen dugu.

Hori guztia egiten da Baqué pertsona bat beti egon dadin prest bezero bakoitzaren behar eta ardurei erantzuna emateko.

• Baqué kafea baino gehiago da. Urtetan zuen kafe sorta produktu osagarriekin osatu duzue. Zertan oinarritzen zarete produktu horiek aukeratzeko?

Gure bezeroekin dugun gertutasunak sektorearen beharrak eta eskaerak ezagutzen laguntzen

“*Gure talde komertziala urtetako esperientzia duten gazte gogotsuek osatzen dute. Bezeroari arreta pertsonalizatu eta hurbilaren bitartez zerbitzu ezin hobea ematen dio, eta hori da gure kafe marka bereizten duen ezaugarria*”

digu. Horrek, kontsumitzaileak ezagutzeko egiten ditugun ikerketekin batera, kafearen osagarri diren produktuak aurkitzen laguntzen digu, eta, batez ere, ostalariari laguntzen dio, produktu sorta oso batekin bezeroak fidelizatu ditzakeelako. Horrela, behar guztiei erantzuna ematen dien hornitzaile integral bihurtzen gara.

• Merkatuko kafe katilu onena lortzea zuen bezeroekin partekatzen duzuen helburua da. Kontsumitzaileek diote kafetegietan hartzea gustatzen zaien kafea zuena dela, beraz, helburua lortu duzue. (Iturria: Ikerfel, 2013. EAEn kontsumitzen eta erosten den kafeari buruzko adierazleak gainera azterketi buruzko ikerketa). Zein da zuen errezeta bezeroek katilurik onena zerbitzatu dezaten?

Cafés Baqueren kalitate handiko kafeekin lan egiten dugu, eta gainerako kafe txigortzaileek ez bezala, jatorrien arabera txigortzen dugu, eta horrek kafe katilu berdina eta homogeneoa ziurtatzen du beti. Egunero txigortzen dugu. Gure kafea beti da freskoa eta egin berria, eta gure lurraldeko edozein puntutara heltzeko gai den salmenta indar eraginkor batekin lan egiten dugu; horrek ziurtatzen du salmenta puntu bakoitzean kafea ezin hobea izatea. Gure Kafe Eskolarekin ostalariei ikastaroak ematen dizkiegu, kafea sakonago ezagutu, eta era zuzenean lantzen ikas dezaten. Horregatik, kontsumitzaileak zera dio: “Kafetegietan kafe hau hartzea gustuko dut”.



Ibilgailura Josurekin igo gara. Zazpi urteko esperientzia du Baqueren.

“Egunero, ezarrita dagoen ibilbide batekin, bezeroak bisitatzen ditut. Haien beharrei erantzuten diet: haien eskaerak jasotzen ditut, eta martxan dauzkagun nobedadeak aurkezten dizkiet. Produktuarekin nahiz kafe-makina eta kafe-errotarekin ondo konpontzen direla ziurtatzen dut. Gainera, egunaren zati garrantzitsu bat bezeroak ez diren establezimenduei bisita egiteko, eta gure marka eta gure produktu sorta aurkezteko erabiltzen dut”.



6 urteko esperientzia duen Ritxarrekin igo gara furgonetara.

“Egunero ia 55 bezero hornitzen ditut haiek eskatutako produktuekin. Gainera, kafe-makina eta kafe-errotak gainbegiratzen ditut, irregularitasunik dagoen ikusteko. Oso garrantzitsua da bezeroarekin harreman estua izatea. Guran konfiantza osoa dute.”

Javierri, Ritxarri eta Josuri esker, zuregana Baqué kafe katilu batekin heltzeko helburuarekin, egunero Baqué ibilgailuetan gure herri eta hirietan zehar ibiltzen diren pertsonen ahotsa eta aurpegia jarri diegu.

Arriaundiko pastelgintza sailean subrogazio orokorra exijitu dute

Enpresaren proposamen berria ez du ondo ikusi LAB sindikatuak; pastelgintza atalean, hamalau beharginetatik bost bakarrik subrogatu dituzte



Arriaundiko beharginak, Durangoko Andra Marian, elkarretaratzea egiten.

IURRETA Markel Onaindia Arriaundi enpresako beharginek protestan jarraitzen dute. Apirilean lehertu zen arazoa, enpresak pastelgintza saila itxiko zuela iragarri zuenean. LABek protestak hasi zituen uztailan, eta sail horretako behargin guztiek 22 eguneko greba egin zuten. Azkenean, enpresa atzera bota da, LABeko ustez, “presio eta borroka

sindikalagatik”. Baina proposamen berria ere ez du ondo ikusi sindikatuak. Hamalautik bost behargin bakarrik subrogatu ditu enpresak, pastelgintzatik okindegira pasatuta, eta subrogazioa orokorra izatea exijitu du sindikatuak. Eskaera kalera atera zuten berriro eguaztenean LABeko eta UGTko kideek.

Okindegian ere arazoak izan ziren. Diotenez, soldata murriz-

keta iraunkorrak ezarri zituzten ELAgaz eta CCOOgaz adostuta. LABek epaitegira eroan du gaia, eta gogoratu du egutegiari eta aparteko soldatei buruzko gaiak ere epaitegira eroan zitzuela, eta irabazi egin zuela.

“Enpresak jarrera aldatu behar du”, adierazi dute LABeko kideek. Eta negoziatziora batzea eta “inposaketa eta xantaiak” alboratzea eskatu dute.

Etxegabetze kasuetarako protokoloa onartu dute

IURRETA A.U.

Etxegabetze baten aurrean egonez gero, udaleko arlo bakoitzak zer egingo duen zehazteko protokoloa onartu dute asteon Iurretako Udaleko osoko bilkuran.

Etxetik kaleratzeko arriskuan dauden herritarrentzat

Etxegabetzeak egiten dituzten bankuekin harremanak etengo ditu Iurretako Udalak

zuzeneko arreta zerbitzua eskainiko du udalak. Etxegabetzea hasi duen banku erakundeagaz bitartekari lanak egingo ditu udalak, eta etxegabetzeak egiten dituzten banketxeekin harremanak etengo ditu. Udaleko arduradunek protokoloan zehaztu dutenez, kaleratze baten ostean, hustutako etxeak alokairuan ipintzeko ahalegina ere egingo du udalak.

asanbladak urtero antolatzen duen tortilla txapelketa izango da herrigunean.

Asteburu bete izango bada ere, egun indartsuena San Migel bezpera izango da. Zapatu gauetz Baraia Band, Fiachras eta Exaixu taldeen kontzertuak egon arren, goizetik hasiko dute eguna domekan. 12:00etan Montoitik txapliguak botata emango dute abisua. Eguerdian, besteak beste, erromeria edukiko dute Dantzari plazan. Arratsaldean, Donien Atxa jaso, eta dantzariak, neska eta mutil, iaz bezala, azken entsegua egingo dute. Aurretik giroa egongo bada ere, orduan hasiko dira jaiak ofizialki.

www.anboto.org webgunean San Migel jaien atal berezia

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP



Espainiako Itzuliaren etapa

Bizkaiak argi utzi du arrakasta ekonomikoa dakarten eta gure herrialdeak dituen indarguneen erakusleiko diren garrantzi handiko kirol ekitaldiak har ditzakeela.

Munduko Saskibaloi Txapelketaren atariko fasea Barakaldoko BECen jokatu da. Eta aurreikuspenak betetzeaz gainera, nazioarte mailako ekitaldiak antolatzeke dugun ahalmena zein den jakiteko ere balio izan du. Proba hori emaitza onarekin gaintitu ondoren, orain Bilbora zuzendu dira begirada guztiak, San Mames berria delako 2020ko Europako Futbol Txapelketako Espainiako egoitza. Lehiaketa horiek zalantzarik gabeko interesa dute, Espainiako Itzuliak duen era berean. Izan ere, Vuelta itzulirik garrantzitsuenetakoa da Tourrarekin eta Giroarekin batera.

Arabako Foru Aldundia egin beharreko kudeaketak egiten ari da Vuelta datorren urtean ondoko herrialdetik igaro dadin, eta uste dugu Durangoko Udala ere tartean sartu beharko litzatekeela. Horregatik, udalari eskatzen diogu egin beharrekoak egin ditzala etapetako batek amaiera Durangon izan dezan, edo, behintzat, tropela gure herritik pasa dadin.

Urkiola mendatea aliatu bikaina da helburua lortzeko. Durangok irabazi egingo luke, milioika ikus-entzule jabetuko litzatekeelako gure herriaren edertasunaz, eta, era berean, Durangaldeko, Bizkaiko eta Euskal Herriko txirrindularitzazaleek ere irabazi egingo lukete.

Badatoz azken entseguaren ordua eta sanmigeletako hiru eguneko asteburua

Alde Zaharretik herrigunera helduko da giroa DJagaz eta tortilla txapelketagaz



Iurretako dantzariak, iazko San Migel bezperan, Donien Atxa eroaten.

IURRETA Amaia Ugalde

Gaur hasi eta astelehenera arte San Migel jaien lehenengo ekinaldia egingo dute iurretarek. Gaur, umeentzako herri kirolak, asto probak eta DJak izango dituzte, apurka-apurka berotzen hasteko.

Jaietako ekintza ia guztiak plaza inguruan izaten direnez, herrigunean giroa sortzeko jarduerak prestatu dituzte aurretik. Horrela, gauerditik aurrera As-kondoko agertokian DJ Braxx egongo da, tabernariak kontratatuta. Zapatuan, berriaz, gazte

HEKi
HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

momotx
taberna

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

2015erako udal zergak bere horretan utzi gura ditu EAJk

DURANGO M.O.

2015erako udal zergak “izoztea”. Hori da EAJk eztabaidara eroango duen proposamena. “Une honetan posible zaigu presio fiskala mantentzea, kontuan izanda gure diru-sarrerak mantendu egin direla”, adierazi du Aitziber Irigoras alkateak prentsa ohar bidez. “KPIaren egoera kontuan izanda eta udaleko kontuak ondo daudela

Irigorasi berbetan, herria ekonomikoki berrindartzea da garrantzitsua

ikusita” hartu dute erabakia. Gainera, Bizkaiko diru-bilketa arloan aurreikuspenak egin dituzte, eta Udalkutxatik sarrera gehiago egotea ei da balorazio horren emaitza.

Irigorasi berbetan, herria ekonomikoki berrindartzea da garrantzitsua, baita familiei laguntzea ere: “Batez ere, arazo gehien dituztenei laguntzea, argi dugulako pertsonen alde ari garela lanean”.

Zergak ez igotzeaz gainera, hobariak ere iazko neurri berrean uztea proposatu du gobernu taldeak.

Iaz %2,2ko igoera onartu zuten EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin.

“Konpromiso etiko eta soziala” eskatu dute

EH Bilduk Kutxabankera jo du etxegabetzeak direla-eta

DURANGO Markel Onaindia

Kutxabanke zenbat etxegabetze egin dituen, eta zenbat etxe dauzkan hutsik. Horiek izan ziren joan zen barikuan EH Bilduk banketxearen Zumalakarregi kaleko bulegoan eskatutako datuak. Udalaren bidez sarritan eskatu izan ditu datuok, baina ez du erantzunik jaso. Kutxabanken dago Durangoko diru publikoa, eta, horregatik, “konpromiso etiko eta soziala” eskatu dio EH Bilduk.

Udalan hiru mozio onartu dira azken urte bietan gaiaren inguruan, eta eskakizunetako bat etxegabetzeak aurrera erosten dituzten banketxeetatik diru publikoa ateratzea zen. Barikuan, bulegora joatean, ez zuten erantzun argirik jaso banketxeen partetik: “Uztaileko mozioan eskatzen zenaren berri

prentsaren bidez eduki zuten”, esan zuen Eider Uribe. Udalgaz hartu-emanen bat egon den arren, datuen berririk ez dago. Banketxeen ordezkariak mozioa eman zieten, eta horiek gaia Bilbora bidaliko dutela esan ei zuten, Uriberen arabera.

Kalean informazioa banatzen ere ibili ziren adreilu moztaroen. Kutxabanken etxegabetzeak kritikatu zituen Dani Maeztuk: “Durangarren dirua kudeatzen duen banketxe batek ezin du durangar bat kalean utzi”. Gainera, etxe hutsak dauzkala adierazi zuen.

72 kaleratze

2013an 64 etxe kaleratze sinatu ziren Durangoko epaitegian (Durangaldea eta Arratia biltzen ditu), eta 2014an, ekainera arte, 72.



EH Bilduko kideak, joan zen barikuan, Zumalakarregi kalean.

Ludoteka, kirol eskola eta udalekuetarako laguntzak

ELORRIO M.O.

Udalak herriko familiei diruz lagunduko die, ludotekan, kirol eskolan eta udalekuetan umeak edukitzearren sortutako gastuak arintzeko. Gobernu Batzordeak 3.000 euroko aurrerikotua onartu berri du, familien eskaerei aurre egiteko.

Interesatuak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak udaletxean

“Gizarte kohesioa bultzatzea” da udalaren helburua.

Azaldu dutenez, interesatuak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak udaletxean.

Euskara ikasleei laguntzak

Bestalde, 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteagatik ere diru-laguntzak jaso ahalko dira udalaren partetik. Horretarako, 10.000 euroko aurrerikotua gorde du udalak. Laguntza jasotzeko zenbait baldintza bete behar direla adierazi dute arduradunek: Elorrioren erroldatuta egotea, eskoletan gutxienez %80ko asistentzia edukitzea eta udalean zorrik ez edukitzea. Urriaren 17ra arte egin ahal dira laguntza hori jasotzeko eskaerak.

> DURANGALDEA ASTEON

Laugarren maila, eskualdeko AEKn

EUSKARA > Urriaren 1era arte dago izena emateko aukera, EGA edo C1 maila gaindituta, euskarazko ahozko zein idatzizko gaitasuna hobetu gura dutenei zuzenduriko ikastaroan. AEK-k Durangon, Zornotzan eta Ermuan eskainiko du ikastaroa, eta HABEren egiaztagiria lortzeko aukera dakar 180 orduko ikastaroak.

Durangon, ibilaldi bi nagusientzat

IBILALDIAK > Urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira, nagusiei zuzendutako irteera bi egingo dituzte. Andra Marian hasiko dituzte, 10:00etan, eta Tabiran amaitu. Ondoren, ondo zahartzeko neurrien aldeko manifestua irakurriko dute. Gaur da izena emateko azken eguna Durangoko adinekoen egoitzan.

Ikastaroa lehen sorospenari buruz

IKASTAROA > Durangaldeko Gurutze Gorriak lehen sorospenak zelan egin ikasteko ikastaroa antolatuko du urriaren 25etik azaroaren 29rako. Zapatu eta domeka goizetan izango dira eskolak. Ikastarorako izen-ematea hasita dago, eta formaciondurango@cruzroja.es posta elektronikoa eman daiteke izena.

Iritzia

Udal gobernu taldeari: bidea oinezkoentzat egiten hasi aurretik, auzotarrekin landu eta adostu dadila

Zelaieta auzoko berrantolaketa hizpide izan du udaletxean, azken urteotan. Hasieratik, udal gobernuak, auzoko beharrezan aurre egiteko, trafikaren noranzkoen aldaketa huts bat egitea proposatu zuen, eta erabakiak Hirigintza Batzordeko kideek soilik hartzeko asmoa zuen udalak.

EH Bildutik, aldiz, beti esan dugu auzoaren berrantolaketa bere osotasunean aztertu behar dela, trafikoa gain, hainbat faktore hartu behar direlako kontuan mugikortasuna aztertzerakoan. Gainera, auzotarren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu, auzotarrak direlako inor baino hobeto beraien egunerokotasunean eragiten duten faktoreen jakitun.

2013ko udaberrian, udalak EH Bilduren eskariari baiezkota eman zion, eta parte-hartze prozesu bat zabaltzea adostu zen. Bertan, ume, gazte zein heldu ugari aktiboki hartu zuen parte antolatutako jardueretan.

Lehen fasea bukatuta, parte-hartzaileek ateratako ondorioak auzotar guztiei ezagutaraztea eta exekuzio fasea abiaraztea eskatu genuen, eta bertan, diseinu orokorrak gain, ibiak, aparkatzeko ordutegiak, aktuzio urbanistikoak eta gisa horretako zehaztasunak ere adostu ziren.

San Trokaz ingurua berrantolatzea prozesu parte-hartzailearen ondorioetako bat izan arren, urtebete gaia jorratu gabe igaro ostean, udal gobernuak erabaki zuen irailetik aurrera plaza, auzokideentzat salbu, trafikarentzat moztea. EH Bildutik adierazi genuen, ekintzekin hasi aurretik berrantolaketarako aspektu teknikoak landu behar direla, sortzen ari diren arazoak aurre egiteko eta denen artean adostasun bat bilatzeko.

EH Bildutik ezer egin baino lehen parte-hartze prozesuaren bigarren fasearekin hastea eskatzen dugu, eta, auzotarrekin gauzak landu eta adostu ostean, ekintzekin hastea.



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Berbaz**Francisco Etxeberria Gabilondo** | Auzitegi medikua | Beasain, 1957

“Memoria historikoaren inguruan jakin gabe berba egiten duen jendea dago”

Argiñetan egindako indusketetan parte hartu du Paco Etxeberria forentse gipuzkoarrak

> BERBAZ Jone Guenetxea
36ko gerrako hobi komun en azterketetan egiten diharduten lanaren berri emateko asmoz, Paco Etxeberria auzitegi medikua hitzaldia eskaintzekoa zen atzo, Iturri kultur etxean. Azken orduko eragozpenak medio, Jimi Jimenezek eman zuen berbaldia.

‘Exhumando fosas, recuperando dignidades’ izenburupean eman gura zenuen berbaldia Elorrioren. Gaia zein ikuspuntutatik landu gura zenuen? Egiten duguna azaltzea da asmoa, oraindik ere, jakin gabe eta topikoak erabilia berba egiten duen jendea baitago. Zailak dituzten pertsonak guregana gerturatzeko direnean, ekimen hauek dituzten alde onez konbentzitzen ditugu. Eki- men hauek aurrera eramatea beharrezkoa dela ohartzen dira, duten balio demokratikoarengatik eta hezitzailearengatik.

Bestalde, Argiñetako indusketetan parte hartu duzu. Zer lan garatu duzue? Bizkaian, arkeologia arloan, esperientzia handiko lantaldeek dihardute lanean. Lan handia

egin da, eta, kasu horretan, lekuarengatik, ikerketa mota hau egin behar zen. Emaizak ondare kolektibora bideratu daitezke. Zientziari eta kulturari buruz berba egitea oso positiboa da.

36ko gerrako hobi komun en indusketetan lan handia egin duzu. Herri askotan hobiak egon zitezkeela uste izan arren, inork ez du ikerketarik egin urtetan. Zelan ekin zenion ikerketa bide horri? Askok bidegabeki kritikatu duten mugimendu zibila izan da. Orain denok dakigu biktimek memoriarako eskubidea dutela, eta gizarteak memoriaren beharra duela. EHuko irakasle naizenez, laguntza eskatzen didatenak ezin ditut erantzunik gabe utzi. Gai honetan ez du balio neutrala zarela esateak, giza eskubideen urraketa bat baita.

Batzuek zioten gertatutakoa aztertzeak zauriak zabalduko zituela. Pentsatzeko modu hori aldatu egin da? Geroz eta ulermen handiagoa dago, eta alderdi politiko guztiek beraien programetan memoria eta oroimena barneratuko dituzten unera helduko gara.

“EHuko irakasle naizenez, laguntza eskatzen didatenak ezin ditut erantzunik gabe utzi

“Biktimek memoriarako eskubidea dute; gizarteak horren beharra du

Lehendakariak joan zen asteburuan Elgoibarren (Gipuzkoa) memoria historikoaren arloan Eusko Jaurlaritzak jarraituko duen programa iragarri zuen. Zer deritzozu? Urteak dira Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen Zuzendaritzatik, memoria historikoaren inguruan hainbat ekimen martxan jartzen dituela. Denok hartu dugu esperientzia nahikoa NBEk exigitutako nazioarteko

irizpideak beteko dituen plan bat garatzeko.

Valladoliden (Espainia) ekin zenion medikuntza ikasteari. Espezialitate moduan zergatik aukeratu zenuen auzitegi mediku izatea?

Auzitegi medikuntza ikasketen azken urtean ikasten da, eta ikasgai interesgarria zela iruditu zitzaidan. Irakasleei forentse izan nahi nuela esan nien, eta ikasketak amaitu eta urtebetera lanean hasteko aukera eskaini zidaten.

Lanean hasi zinen sasoi hartatik hona arlo horretan aldaketa handiak gertatu dira? Orduetik hona aldaketa handiak gertatu dira, hoberako gainera. Oinarrizkoena Auzitegi Medikuntzako Erakundea sortzea izan da, forentse taldeak berrantolatuta talde-lana bultzatzeko, protokoloekin eta koordinazioagaz.

Espeleologian diharduzu. Badago paralelismoa auzitegi mediku baten lanaren eta espeleologo baten jardueraren artean? Bi kasuetan norberak miste-

riotsua dena eta ezkutuan dagoena bilatzen du. Mendi baten barruan murgiltzea gizakiaren gatazken arrazoiak ulertzen saiatzea bezalakoa izan daiteke.

Oso autopsia ezagunak egin dituzu. Besteak beste, Lasa eta Zabalenak. Zelan bizi izan zenuen sasoi hura? Zelan gogoratzen duzu?

Gauza bakarrean zehaztu ezin- go nukeen presio orokor batez bizi izan nuen garai hura, baina argi nuen nire txostenak garrantzitsuak zirela.

Beste kasu ezagun bat José Bretonen seme-alabena da. Zelan heldu zinen kasu hori ikertzerara?

Gezurra badirudi ere, kasualitate izan zen: kasuko argazki batzuk ikusterakoan. Kasuan ziharduten adituekin berba egiterakoan konturatu nintzen ikerketaren norabidean zegoen hutssegiteaz, eta, oker egindako txosten baten eraginez, hainbat akats gertatu zirela.

Sarritan zure lanak egoera gogorak bizitzera eramango zintuen. Inoiz bizitza pertsonalean ere eraginik izan al du? Hori ezagutzen nautenek erantzun beharko lukete. Guztiak balio izan dit nire burua hobeto ezagutzeko eta bizitza ikuspuntu kritikoago batetik ikusteko. Azken finean, egiaren bilaketan emaitza ez da ia inoiz osotasunean lortzen, batez ere, giza gatazketan.

Asier Baraiazarra Osie | Musikaria | Durango, 1987

“Bi akordegaz kanta bat egin badezaket, egin egiten dut: gogoko dut soiltasuna”

Iurretako jaietan joko dute, bihar, Asier Baraiazarra durangarrak eta Baraia Band taldeko kideek

➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban

Zer da jendeak lurretako jaietan entzun ahalko duena?

Kanta berriak entzun ahalko ditu, horietan eskainiko ditugu zuzenean; erritmo biziagoko kantak sartu ditugu erreperitorioan. Gure lehenengo aldia izango da hain agertoki handian eta horrelako ekipoagaz, eta gogo handia daukagu.

Noiztik zabilta Baraia Band taldeko lagunekin?

2012an hasi ginen Baraia Band taldeagaz. Oso musikari onak inguratuta dihardut. Zorte itzela daukat! Asier Elias (The Mocker's taldean ere badabil), eta Dani del Valle eta Liher Granados (goi-mailako musika ikasketak egiten dabilta) ditut lagun.

Zelan elkartu zineten laukote honetan?

Liherrek ezagutzen zituen Asier eta Dani, eta horri esker elkartu ginen. Kanta mordoa neuzkan 2008tik eginda, eta horiek taldean jotzen hasi ginen 2012an.

Gitarrak presentzia nabarmena dauka zure kantetan.

Bai, horrela da. Gitarragaz konposatzen dut beti, eta hori inpor-

tantea da niretzat. Normalean gitarra akustikoagaz jotzen ditut kanten lehenengo akordeak, eta elektrikora pasatzen ditut gero. Bi edo hiru akordegaz kanta bat egin badezaket, egin egiten dut: gogoko dut soiltasuna. Eta horixe bilatzen dut.

Beste proiektu batez ere bazabiltza, ezta?

Bai, neuk sorturiko kantak jotzen ditugu The Lionels taldean ere. Logelan grabagailuagaz sartu, eta ideia piloa sortzen zaizkit.

Zer darabilzu orain buruan?

Hamabi abesti dauzkat eginda, eta horiek aurten grabatzea da helburua. Neuk grabatu gura ditut instrumentu guztiak, eta lagun batek lagunduko dit gero nahasketekin.

Egunero jotzen duzu?

Bai; batzuetan jo eta ez da ezer ateratzen, baina beste egun batzuk oso emankorrak izan daitezke. Duela aste bi, esaterako, kanta bi sortu nituen; gauez letrak idatzi, eta osatu egin nituen!

Zure kanten letrak gehiago dira barrura begirakoak.

Bai, neure barruko gauzei buruz

idazten ditut letrak: jendartean zelan sentitzen naizen; haurtzarotik hona zelan igaro den denbora; bizitza eta mundua zelan ikusten ditudan...

Rock gogorretik erritmo ba-reagoetara egin duzu bidea urteotan. Zelan ikusten duzu eboluzio hori?

Ez dauka zerikusirik orain egiten dudanak eta lehenago egiten

nuenak. Urteak pasatu ahala aldatu egiten gara. Ez dakit, zimeldu egin naiz beharbada! [Barrez]. Baina neurea egin gura dut, estilo bat edo talde bat erreferentzia bakartzat hartu barik.

Hardcore giro horretan berriro murgilduko zinateke?

Bai, oso gustura gainera! Bizipen ederrak izan genituen hasierako taldeetan.

Zer nahiago duzu, zuzenekotan bakarka jardun ala taldekiek lagunduta jo?

Batak eta besteak ez daukate zerikusirik. Atzean taldea daukadala jardutea asko gustatzen zait. Abestia erakusten diet lokalean, eta, taldekideak musikariak direnez, denen artean ematen diogu kantari azken egitura. Oso aberasgarria da gitarra batez sortutakotik soinu zelan aberasten den ikustea.

Bakarrik edo taldeagaz jo izan duzu gehiago?

15 urte inguru nituenean hasi nintzen gitarra jotzen, eta hainbat taldetan jo dut ordutik hona: Kezka, Saxexful eta Flashback taldeetan. Rock-and-rolla eta punka jo dugu talde horietan.

Zuzenean, zelako giroetan jarduten duzu gusturen?

Taberna txikietan jotzea, esaterako, oso gogoko dut. Adibidez, azken zuzenekoa Durangoko Intxaurren eman genuen, eta oso gustura egon ginen.

Zeintzuk dira zure egiteko moduan eragina izan duten taldeak edo bakarlariak?

Oasis taldea aipatuko nuke: 18-20 urte nituela lagun batek disko bat oparitu zidan, eta denboraldi batez hori baino ez nuen entzuten. Baina lehen egiten genuen musika gogorragoaren estiloko doinuak ere gustuko ditut.

Durangaldeko talderen bat bereziki gogoko duzu?

Txundituta naukate, esaterako, laster diskoa kaleratuko duten The Mocker's taldeko lagunak. Maila itzela daukate 20 urteagaz! Kilauea taldea ere gustuko dut, esate baterako.





Sabel-dantza eta dantza tribalak uztartuko dituzte bihar gaueko San Agustingo emanaldian. Argazkia: Malas Hierbas.

‘Pekados kapitaless’ lana aurkeztuko du Khuzayma dantza taldeak, bihar

San Agustinen eskainiko du Durangoko dantza taldeak ikuskizun berria

> DANTZA Itsaso Esteban

Sabel-dantza eta dantza tribalak elkartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute Durangoko Khuzayma sabel-dantza taldeko hamabost kideak, bihar, 20:30ean, San Agustín kulturgunean. *Pekados kapitaless* izena du ikuskizunak, eta koreografia berriekin osatu dute. Duela bi urte eskaini zuen Khuzaymak

ikuskizun bat lehengoz Durangoko kulturgunean, eta orain arte landu bako dantza estiloak barneratu ditu aurtengo ikuskizunean: dantza garaikidea, *dancehall* eta *butoh* estiloak. Gorputz mugimenduaren bitartez, bekatuaren ideari buruzko gogoeta plazaratuko dute Khuzayma taldekoek. Nafarroa, Kantabria eta Valladolideko

lagun dantzariak gonbidatu dituzte Durangoko emanaldira.

San Agustín kulturguneko emanaldiaz gainera, dantza tailerrak ere antolatu dituzte Khuzayma taldekoek biharko; *tribal fusion*, *dancehall* eta dantza garaikidea praktikatu ahalko ditugura duenak. Bertaratzen denak errepikatu egiten duela adierazi dute taldekideek. Beraz, gehiago

pentsatu gabe, zapatuan gerturatzeko gonbita egin dute.

Gaur gauerako ere ekimen berezia antolatu dute Durangoko Khuzayma sabel-dantza taldekoek. Eszenatoki irekia atonduko dute Sweet & Vicious diskotekan, 20:00etatik aurrera: sarrera doakoa da, baina aurrez eman behar da izena, eta edozein gerturatu ahalko da bertara, dantzaz gozatzen.

Asteburu honetako emanaldi eta ekimen berezien ostean, urrian berrartuko dituzte Khuzaymako 30 kideek asteroko saioak. Ekialdeko dantzak ikasi gura dituenak danzadurango@hotmail.com helbidera idatzi behar du izena emateko.

GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza
Bertsolaria



Kea

Gauza bitxiak gertatzen dira gurean. Donostia 2016 proiektuaren buru, euskaraz ez dakien jaun bat izendatu dute. Garrari putz eginda nola, sutan berehala Twitter, Facebook eta enparauak, sutan zurtz eginda geratu diren euskaltzale asko. Aukeratuak barkamen hitzak bere “hutsuneagatik” lehen agerraldian. Hautatzaileak justifikazioa bigarrenetan: “Euskaraz ez, baina ingelesez bikain moldatzen da...”. Eskerrak! Orduan zalaparta bete-betean, zer egiten dugu? Elkar jo. Han dator hautatzailearen kidea ezpata zorrozuta, berehala konpondu beharreko akats larri bat izan dela esanez. Orduan bai, askoz lasaiago denok.

Badabil bideo bat sarean egunotan, lau minutu eta erdiko irakaspena. Neska ezpain-gorri batek segurantz handiz aurkeztu du bere burua: “Maria naiz, Greziakoa. 22 urte ditut, eta euskara ikasten dut neure kabuz. Ez naiz inoiz Euskal Herrian egon, baina 2013ko udan bertako neska bat ezagutu nuen, eta euskaraz entzun nuenean txundituta geratu nintzen...”. Maria gure hizkuntzarekin berehala maietandu zen inondik ezagutu gabe; aldiz, Berastegui jaunak orain artean ikasteko grinarik izan ez badu (nahiko adierazgarria da hori), gutxienez zalantzan jartzeko modukoa hemendik aurrera egin deza-keena ere.

Bada ia hilabete gure politikarien artean sua piztu zenetik. Baina pasa dira asteak, eta, hizkuntzaren auziarekin maiz gertatzen den bezala, zer gertatu da? Kea. Bada, ez, ni behintzat ez nago lasai.

Opera, musika klasikoa eta balleta, zinemako pantailan, Durangon

Durangoko Zugaza zineman izango dira emanaldiak

> MUSIKA

Londresko Royal Opera House antzokiagaz akordioa sinatu du Zugaza zinemak. Horri esker, Europako hainbat hiriburutako antzokietako opera, ballet eta musika klasiko emanaldiak, zuzenean eta bereizmen handiagaz, eskainiko dituzte Durangoko zinemako pantailan. Irailean Giuseppe Verdi buruzko zikloa ari dira eskaintzen: Milango Scala antzokiko

La Traviata eta *Carmen* operen emanaldiak eskaini dituzte Zugazan. Irailaren 29an emango dute Verdiren inguruko zikloa amaitutzat: *Aida* eskainiko dute egun horretan, 20:00etan.

Ikasturte honetan satelite bidez eta zuzenean emango dituzte, esaterako, *Manon* eta *La Fille Mal Gardée* balletak, eta *I Due Foscari*, *La Bohème* eta *Guillume Tell* opera ezagunak ere, Zugaza zineman.

Banarteren eta Irriklowlonen eskutik, clown tailerra

Abadiñon eskainiko dute tailerra, urritik maiatzera

> ANTZERKIA

Abadiñoko Banarte antzerki taldeak eta Gurutzetako ospitaleko gaixoekin lan egin ohi duen Irriklowlon taldeak eskainiko dute clown teknikaren inguruko tailerra.

Felipe Cuétara Barakaldo-ko antzerki eskolako irakasleak gidatuko ditu saioak, eta partaideek “adinagaz galtzen joaten garen inozentzia berreskuratzea” izango dute helburu. Jolasak baliatuko dituzte clown teknikan sakontzeko.

Ikasturte osoko tailerra da Irriklowlon elkarteak Abadiñon eskainiko duena; urrian hasiko da, eta maiatzera arte iraungo du. Egunean, Traña-Matienako Errota kultur etxean eskainiko ditu saioak, 18:00etan hasi eta 20:30era arte.

Ikastaroaren nondik norakoen informazio zabalagoa eskuratzeko eta izena emateko banarte@gmail.com helbidea, eta 656 775 153 zein 658 732 190 telefono zenbakiak erabili ditzakete interesdunek.

Paco Obregón
Adiós, Chéjov

Urriaren 3an - 20:00etan
Urriaren 4an - 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA

Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

IRAILAK 26 - 22:30ean 6 / 7 euro
MOBY DICK eta LOU TOPET
MUSIKA KONTZERTUA

IRAILAK 27 - 13:00etan Santa Anako elizpetik
KANTULAGUN KALEZ-KALE
Kantu-poteoa Alde Zaharretik zehar
KANTUZALEEN TXOKOA

IRAILAK 27 - 22:00etan 3 euro
MATXAKA FEST
Oier Macho gaztearen omenezko kontzertuak
MUSIKA KONTZERTUAK

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu
deitu!

946 217 902



2014 BELDUR BARIK LEHIAKETA

Pentsatu, eztabaidatu eta ekin,
 Informazio + // + información:
www.beldurbarik.org

Beldur Barik jarrerarekin!

DURANGALDEA BELDUR BARIK LEHIAKETA

LEHIAKETA Nori zuzendua: Abadiño, Berriz, Durango eta lurretan erroldatuak edota ikasten ari diren 12-26 urte bitarteko gazteak. SARIAK Kategoria 12-17 urte Lanik onena 150€ Aipamen berezia 100€ Kategoria 18-26 urte Lanik onena 300€ Aipamen berezia 200€ Lanak jasotzeko epea: azaroak 12	TOPAKETA Sariak Durangaldeko Beldur Barik Topaketan jakinarazi eta banatuko dira. Data azaroak 27 Lekua San Agustin Kultur Gunea Ordua 19:00etan
--	---

i
durangaldeabeldurbarik@gmail.com

EAE-KO LEHIAKETA Durangaldeko lehiaketan aurkeztutako lanek zuzenean parte hartuko dute EAEko lehiaketan ere.

SARIAK Kategoria 12-17 urte Lanik onena 500€ Aipamen berezia 300€ Kategoria 18-26 urte Lanik onena 500€ Aipamen berezia 300€	Saria ikus-entzunezko ekoizpen onenari 300€ Herriaren saria: 300€	TOPAKETA Data: azaroak 29 Lekua: Urretxu-Zumarraga
--	---	--



EMAGINEEN AURKARI INDARKERIAK
 NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

ANTOLATZAIKAK / ORGANIZAN







BULTZATZAIKAK / IMPULSAN








LAGUNTZAIKAK / COLABORAN




















JATETXE GIDA

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€

bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauean itxita.

ÑAM!



IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.

Gure upategian egindako sagardoa.

Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi
pertsonarentzako menua zozkatuko dugu

Nork entrenatzen du DRTko gizonen lehen taldea?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo

ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

Aurreko zozketako irabazlea: **Olatz Batiz**, zorionak!

ZORTE
ON!

 Kirola**Ines Etxegibel** | DRTko entrenatzailea | Durango, 1974

Lehior Elorriaga.

“Jokalari zein pertsona lez hezi eta hazi naiz hemen”

Urtetan kanpotik ibili ostean, etxera bueltatu da Etxegibel, DRTko mutilen lehen taldea entrenatzeko

➤ **ERRUGBIA** **Markel Onaindia**
Oraindik ere, ez da ohikoa neska batek mutilen talde bat entrenatzea. Batzuentzat normala ere ez; Espainiako tenis selekzioan Gala Leonegaz gertatu dena da horren adibide. Aurten Ines Etxegibelek hartu du Durango Rugby Taldeko mutilen lehen taldearen ardura. Urtetan kanpotik ibili da: Katalunian jokatzeko, eta Euskadiko eta Espainiako selekzioen hautatzaile, adibidez. Baina etxera bueltatu da orain, abentura berri batean murgiltzeko. DRTren proiektu sozial eta lehiakorrean sinisten du, eta ilusioz dago klubeko partaide delako berriro. 14 urtegez hasi zen errugbian jokatzeko, eta ez du pasiorik galdu.

Urtetan kanpotik ibili ostean, etxera bueltan etorri zara. Zelan gertatu da?
Zuzendaritzakoek galdetu zidaten ea etxera bueltatu gura nuen, eta, gainera, mutilen lehenengo taldea erorako erantzukizunagaz. Segituan baietz esan

“**Emakumeen taldeak beti izaten dira azkenak, eta errugbia beti egon da gutxiengoan**”

nuen, pentsatu barik. Ilusioa egiten dit hona etortzeak; jokalaria zein pertsona lez hezi eta hazi naiz hemen. Erronka bat da, baina daukaten filosofia ikusita, oso erronka erakargarria.

Espainiako emakumeen selekzioa uztetik zatoz.
Abuztuan izan zen Espainiako selekzioagaz nire azkeneko ekintza, Parisko Munduko Kopan. Federazioan aldaketak direla-eta, banekien ez nindutela aintzat hartuko, eta ni ere apur bat aspertuta nengoen. DRTren proiektuaren gainean segurtasun osoa neukan. Hasi berri gara, eta ea nora eroaten gaituen abentura honek.

Zelan baloratzen duzu selekzioan bildutako esperientzia?
Oso esperientzia polita izan da. Gainera, egon diren jokalariai askoz jokatu izan dut; jokalariai izatetik entrenatzaile izatera igaro nintzen. Nik uste paper ona egin dugula, nahiz eta baliabide gutxi eduki. Kirolean emakumeen taldeak beti izaten dira azkenak, eta errugbia beti egon da gutxiengoan. Munduko Kopan bederatzigarren geratu ginen hamabitik. Zortea ere hor dago; izan ere, sailkapen fasean Kanadaren eta Ingalaterraren kontra egokitu zitzaigun, eta gero ikusi genuen eurek jokatu zutela finala.

Emakume izanda, gizonak entrenatuko dituzu, eta badirudi oraindik ere batzuentzat ez dela normala. Gala Leonegaz gertatu denak ematen du zer pentsatua...
Nire ustez, ez dago generoak zirikurik daukan arlorik. Nire taldekoek ez dute eduki esperientziarik neska entrenatzaileekin, eta nik ere ez mutilekin.

Baina kirol bera, pasio eta maitasun bera partekatzen badugu, ahaztu egiten dugu eurak mutilak direla eta ni neska naizela. Entrenatzerakoan, errugbiak pentsatzen dut, ez mutil edo nesken. Eta, uste dut eurek ere berdin pentsatzen dutela. Gaitasun kontua da. Zuendaritzakoek hautatu naute, euren ustez profila dudalako. Normalean, mutilen taldeetan mutilek eroraten dute erantzukizuna, eta nesken taldeetan neskek. Eskerrak hori ere pixkanaka aldatzen dabilen, eta mugak apurtzen gabiltzan.

Errugbia gutxiengoan dagoela diozu. Baina Durangon DRTk badauka zabalpena, ezta?
Bai. Nik uste dut gero eta zaletasun handiagoa dagoela. Argi dago aurretik egindako lana polita izan dela. Aratz Gallastegik eroraten du talde osoa, eta estamentu guztien artean erlazio oso ona dago, sinkronizazioa dago. Denok dugu helburu bera: kluba. Honi bide luze bat ematen saiatzen gara, eta hori da benetan erakartzen nauena. Maila

sozialean eta lehiakorrean hazi gura dugu, baina bi arloak lotuta.

Zer helburu daukazue aurten-go denboraldirako?
Hasi berri gara, eta argi eta garbi daukagu lan asko egin behar dugula. Baina ez dut helburu finikorik ezartzen; orain modan dagoen “partidurik partidu” hori nahiago dut [barrez]. Nik esaten

“**Maila sozialean eta lehiakorrean hazi gura dugu, baina bi arloak lotuta**”

diet entrenamenduetan irabazi edo galtzen ditugula asteburuetako partidua. Horretaz gainera, gure proiektu lehiakorrera gero eta jokalaria gehiago batzea da helburua.

Zelako entrenatzailea zarela esango zenuke?
Nik uste dut oreka nahiko ona daukadala. Gaitasuna daukat gure gabeziak ikusteko eta horrek lantzeko. Lehenengo, taldearen ezaugarriak aztertu behar dira, eta gero, hortik abiapuntu bat sortu. Ni ere egokitzen nabil.

Zelako jokalariai daukazu taldean?
Bi eratakoak. Batetik, esperientzia eta ibilbide handikoak, eta, bestetik, lehenengo taldera sartzen orain hasi direnak. Gaztetxoak beste talde horretan sartzea da nire helburua, bien arteko oreka lortzea.

Zer dauka errugbiak hainbeste lotzeko?
Lehenengo eta behin, kirola da. Nahiz eta kontaktu askokoa izan, araututako kirola da. Jendeak uste du lesio asko egoten direla, baina larriak ez dira asko izaten; hori diote estatistikek. Gero, bizitzeko estilo moduko bat da. Ez dakit zergatik, pasioa-edo izango da, baina hemendik pasatu garen guztiok lotura daukagu errugbiagaz.

Fisikoki gogorra denez, pertsonalki ere lagunduko du, ezta?
Batez ere talde-lana egiten delako. Bakarrik ezin duzu ezer egin. Onena da denok daukagula lekua; nahiz eta ahula edo fina izan, errugbian beti daukazu zure ezaugarrietara egokitzen den posturen bat.

Espezialistarik onenak batuko ditu Mallabiko mendi duatloiak bihar

Bihar arratsaldean egingo dute Euskal Herriko zirkuiturako puntuagarria den mendi duatloia; gero, erromeria eta bertso-poteoa egongo dira



Zirkuitu nagusiko parte-hartzaileek hamasei kilometro egingo dituzte bizikletan. 'www.mendiduatloia.com'.

> MENDI DUATLOIA J. Derteano Bihar arratsaldean, mendi duatloia-aren laugarren ekitaldia jokatuko da Mallabian. Aurten proba domekatik zapatuta aldatzea erabaki dute, herrian jai giro handiagoa sortzeko egun aproposagoa delako. Horrela, mendi duatloia-aren ostean, Lumagorri

pintxoak salduko dituzte, bertso-poteoa egingo dute, eta Soralezko Zero Xiete taldeak erromeria eskainiko du plazan.

Mallabiko mendi duatloia Euskal Herriko zirkuituko laugarrena da; ondoren, beste bederatzi faltako dira. Federatuentzat zein federatu gabekoentzat

dago zabalik, eta, urtero legez, ibilbide bi aurreikusi dituzte. Ibilbide luzean, lehenengo, korrika arituko dira parte-hartzaileak, eta 3,4 kilometroko zirkuituari itzuli bi emango dizkiote (288 metroko desnibel positiboa); ondoren, hamasei kilometro egingo dituzte bizikle-

tan (670 metroko desnibel positiboa); eta, amaitzeko, beste itzuli bat emango diote korrikako zirkuituari. Zirkuitu laburra erosoagoa da: bi kilometro korrika, zortzi bizikletan eta beste bi korrika.

Guztira, 140 bat duatloilarik parte hartuko dute. Gizonetan Julen Larruzea eta Unai Yus dira orain arte indartsuen ibili direnak; emakumeetan garaipena Laura Perezen eta Saioa Oli-teren artean egon daiteke.

Gaztetxoan duatloia

Aurreko aldietan legez, gaztetxoan artean zaletasuna bultzatzeko 13 urtera arteko duatloia egingo dute. Proba hasi baino ordu erdi lehenagotik eman daiteke izena.

ORDUTEGIA IRILAK 27

15:00 Gaztetxoan duatloia.

15:45 Ibilbide laburra.

16:00 Ibilbide luzea.

19:30 Lumagorri pintxoak.

20:00 Bertso-poteoa.

23:00 Erromeria.

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroita Jauregi

Pilota teknikaria

Merezitakoak

Askotan esan ohi da denborak gauzak bere tokian jartzen dituela, eta beste behin hala dela esan liteke azken asteetan pilotar munduan gertatutakoetaz.

Irailaren 11tik 21era Mexikon Munduko Pilota Txapelketa jokatu da, baina seguru irakurle gehienok ez duzuela orain artean jakin ere egin. Nazioarteko federazioak antolatuta, eta bertako hedabideetan izaniko isla oso eskasa izan da, nahiz eta bertako pilotari espainiar asko izan Mexikon. Ondorioz, merezitakoa.

Pilotari errioxar handienetakoari pilotazalea ematen ari zaion agurra ere merezitakoa da. Titin III.ak egun gutxi barru utziko ditu kantxak, eta txapelketetako bere azken partidua gaur jokatuko du *gure Pablito*ren kontra. Profesional mailako pilotari beterranoenak dira biak, eta errioxarraren agurrarekin berriztarra izango da zaharrena aurrerantzean. Sanmateoak bereziak dira errioxarrentzat eta, nola ez, Augustorentzat. Mereziko luke errioxarrak, agian, finalean izatea, baina Berasaluzek eta Zabalak aukera hori kendu nahi diote, lehiaketan ez baitago lagunik. Berriztarrek ez dute aukera pasatzen utzi nahi bikote errioxar txapeldunaren kontrako partiduan. Azken finean, eurek ere merezi dute finalean izatea, ala ez?

Eta bukatzeko, oraindik gogoan daukat orain hamar urte-edo iurretar pilotazale beterrano batek Titin III.aren harira aipatu zidana: "Ba... Titin III.a eliz atariko pilotari bat da". Ni neu harrituta utzi ninduen, nik behintzat handienetako-tzat daukat eta. Zorionak Titin III.ari, eta bejondeiola!

Elorrion eta Iurretan mendi martxa bana, asteburuan

Durangaldeko mendietatik zehar ibiliko dira

> MENDIA

Mendizaleek hitzordu bikoitza dute asteburuan. Zapaturako V. Mendi Martxa antolatu du Iurretako Zaldai Mendi Taldeak, eta domekarako Elorrixoko XIX. Bira Erdella Mendizale Taldeak.

Iurretako martxa 08:00etan hasiko da pilotaleku parean. Guztira, 29,3 kilometro ditu, eta 1.580 metroko desnibel positiboa; Atxarte, Urkiola, Saibigain, Leungane, Mugarrikolanda eta San Andres ingurutik ibiliko dira, eta ibilbideak ez du zailtasun tekniko handirik. Izen-ematea egunean bertan

egin daiteke, 07:00etatik aurrera (10 euro).

Elorrion ibilbide bi prestatu dituzte. Biak hasiko dira plazan, eta Elorrioko auzoak eta mendiak ezagutzeko aukera eskainiko dute. Ibilbide luzeak 31 kilometro ditu, eta 07:30ean hasiko da; Memaia, Udalatz, eta Intxorta ingurutik ibiliko dira. Laburra 09:00etan hasiko da. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, edo e-mail honetan: erdellamt@erdellamt.com.

Martxa bietan jan-edana egongo da ibilbidean zehar, eta amaieran duxak egongo dira.

Gurutze Frades munduko hamar onenen artean

Bederatzigarren amaitu du Munduko Txapelketa

> TRIATLOIA

Txinako Weihai herrian Distantzia Luzeko Munduko Triatloi Txapelketa jokatu zuten joan zen domekan. Bertan aritu ziren Gurutze Frades eta Roberto Corujo, Espainiako selekzioagaz. Fradesek bederatzigarren amaitu zuen, eta Corujok hamaseigarren. Biak ala biak pozik daude lortutako emaitzagaz.

Igeriketako 4.300 metroak (neopreno barik) bakarrik egin zituen Fradesek, erreferentzia konkretu barik. Bizikletako tartean zorte txarra izan zuen: gupila zulatu zitzaion, eta horrek

denbora baliotsua galarazi zion. Korrikako azken tartean zituen denak eman zituen iurretarrek, eta tarte horretan hirugarren denborarik onena lortu zuen. Azkenean, bederatzigarren amaitu zuen zortzigarrenarengandik hamaika segundora: "Beharbada gehiagorako gosez joan nintzen, baina lasterketak nor bere tokian jartzen du. Pozik nago, nahiz eta helburutzat nuen zortzigarren postua ia helmugan bertan galdu. Oraindik atera gura nabilen arantza da", adierazi du Fradesek sare sozialetan.

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
ARANTZAK BARRURANTZ Xabier Mendiguren Elizegi (2014)	TITANAREN MALDIZIOA PERCY JACKSON & OLINPIARRAK 3 Rick Riordan (2014)	INDAR BAT DABIL HOR Mikel Markez (2013)

A. Urreta
podólogo

Alinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behe - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

#lotsarikgabe praktikatu gurekin

Izan zaitez berbalagun!

Izena emateko: AEK euskaltegietan, Durangoko Udal Euskaltegian, Hizkuntza Eskolan eta Berbaron.

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@ae.org
Durangaldeko berbalagunak



Aldaketa gutxigaz, iazko mailan aritu gura dute Tabirako Baqueko talde nagusiek

Emakumeek liga irabazi, eta igoera fasea jokatu zuten iaz; aurten Zuriñe Orube eta Maria Mugerza pibotak dira nobedade bakarrak; gizonetan Iskander de Diosek estreinako urtea izango du talde nagusian



Tabirako Baqué emakumeen aurtengo talde nagusia. Judit Fernandez.



Tabirako Baqué gizonen aurtengo talde nagusia. Judit Fernandez.

> SASKIBALOIA

Tabirakok bere talde guztien jendaurreko aurkezpen ekitaldia egin zuen joan zen astean Landako kiroldegian. Gaztetxoetatik nagusietara aurten 51 taldek (hamabost federatu) eta 660 jokalarik jantziko dute Tabirako Baqueren elastikoa.

Jesus de Vicenteren aginduetara emakumeen taldeak liga irabazi, eta igoera fasea jokatu zuen iaz. Marka hori berdintzea

oso gaitza da, baina horretarako lan egingo dutela adierazi du de Vicentek. Ariane Mendibek eta Ane Sarasolak taldea utzi dute, eta jokalaria berri bi ekarri dituzte: Zuriñe Orube berriztarra eta Maria Mugerza sopoloztarra. Pibotak dira biak. Horiekin batera, gazteen taldeko Aitziber Ardanza hegala-pibota ere nagusiekin ariko da. Iaz, kadete mailan, Euskadiko selekzioagaz jokatu zuen: “Taldea nagusiari lagundu

diezaioke, eta apurka-apurka jokalaria lez zailtzea eta esperientzia hartzen joatea gura dugu”.

Gizonen talde nagusia Iskander de Diosek gidatuko du aurten. Urte askoan kadete eta gazte mailetak taldeak entrenatzen ibili ostean, “motibatze horrelako erronka bat behar” zuela onartu du: “Ilusioz gainezka gaude”.

Taldeak baja bi ditu: David Tudela eta Xabi Balmaseda. Ho-

rien hutsunea Julen Maguregi hegalekoak eta Roberto Onaindia pibotak beteko dute. Biak dira durangarrak. Horiekin batera, erregionaleko taldean dabilzan Paul Rodriguez eta Eneko Maurtua, eta gazteen taldeko Xabi Arroitauregi ere nagusiekin arituko dira.

Iaz apal hasi zuen denboraldia taldeak, baina maila oso onean amaitu zuen. Hasieratik maila onean aritzea du aurten helburu.

Auto klasikoaren rallya gaur eta bihar, Durangon hasita

Gaur, 21:00etan hasiko da rallya, Landako Gunean

> RALLYA

Clasicos Durango taldeak antolatuta, 25 urtetik gorako autoen rallya jokatu dute asteburuan. Gaur, 17:00etatik 21:00etara, Landako Gunean ikusi daitezke rallyan parte hartuko duten 40 auto klasikoak, eta, ondoren, lehenengo etapari ekingo diote.

Rally mota hauen berezitasuna da autoak gehienez 50 kilometro orduko abiaduran

ibili daitezkeela, eta parte-hartzaileek ibilbidea unean bertan deszifratu behar izaten dutela. Gaur gauean Fruiz, Gernika eta Ea ingurutik ibiliko dira. Bihar, 10:00etatik 11:00etara, parte hartuko duten autoak zein parte hartuko ez duten beste 30 ikusi ahalko dira Landako Gunean. Ondoren, 11:00etatik eguerdira arte eta baita arratsaldean ere beste etapa bi lehiatuko dituzte Durangaldetik zehar.



Auto klasikoek 25 urte edo gehiago dituzte.

Ahaz lurreta martxa zikloturistak ibilbide berria

Domekan, 09:00etan hasiko da martxa, plazan

> TXIRRINDULARITZA

Iurreta txirrindulari elkarteak antolatuta, 28. Ahaz lurreta Martxa Zikloturista egingo dute domekan. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 08:00etatik aurrera, Iurretako San Miguel plazan (gehienez 300 parte-hartzaile onartuko dira). Martxa 09:00etan hasiko da. Aurten al-

daketak egin dituzte ibilbidean. Muniketatik Gernikara joango dira, eta hortik Lekeitiora. Bueltako bidean Merelludi, Trabakua eta Miñota igoko dituzte, Elorriotik Iurretara heldu arte. Ibilbideak 92 kilometro ditu, eta indarra hartzeko anoa postu bi ipiniko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Aramaioko rallyan podiumera igo da Tarsicio

Rallysprint txapelketan bigarren postuan dago

> RALLYA

Euskal Herriko Rallysprint Txapelketako azken-aurreko proba (azkena Lazkaon izango da, azaroan) lehiatu zuten zapatuan, Aramaion. Mitsubishi EVO IXagaz hirugarren sailkatu ziren Iban Tarsicio pilotua eta Iñigo Peña kopilotua: “Oso

pozik gaude emaitzagaz, oso arin ibili garen sentzazioa geratu zaigu”, adierazi du Tarsiciok.

Txapelketa amaitzeko azken probaren faltan, Aingeru Castro eta Angel Castro (laugarren Aramaion) daude lidergoan, eta Iban Tarsicio eta Iñigo Peña bigarren daude, baina dagoeneko

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Gallarta

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

Elorrio - Indautxu

· Domekan, 16:00etan, Elorrian.

MAILA GORENA

Abadiño - San Ignacio

· Zapatuan, 17:00etan, Abadiñon.

> ARETO FUTBOLA

MAILA GORENA (gizonak)

Sasikoa B - Gramol

· Zapatuan, 18:30ean, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Elorriko Txiki - Presion Break B

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrian.

Mallabia B - Aurrera Beti

· Domekan, 16:30ean, Zaldibarren.

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrioko Buskantza - Peña

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

Sasikoa-Soloarte

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

> PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

- Olano-Olaizola (lau t'erdian)

- Irribarria-Etxegoien / Albarado-Peñas (binaka)

· Eguenean, 21:30ean, Zaldibarren.

SAN FAUSTO (zesta)

- Noian-Markina

- Donibane Lohitzun-Tolosa

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon

- Lekeitio-Durango B

- Berriozar-Bidart

· Domekan, 12:00etan, Durangon.

> MENDI MARTXA

GARAICO I. MENDI MARTXA

Mendi martxa berria urriaren 4an Garai triatloi taldeak antolatuta.

· Bi modalitate: 20 kilometro oinez edo 30 kilometro mendi bizikletan.

· Aurrefiazko izen-ematea

www.garaitt.com webgunean egin daiteke.

ezin dituzte liderrak harrapatu. Iaz hirugarren postuan amaitu zuten. Txapelketa irabazteko aukerak zituzten, baina azken-aurreko proban, Eibarren, istripua izan zuten, eta aukera barik geratu ziren. Aurtengo txapelketan behetik gorako bidea egin dute. Espero baino pattalago hasi ziren, harik eta Zornotzan bigarren sailkatu arte. Harrezkero gora egin dute: “Datorren urtean hasieratik orain gabil-tzan moduan ibiliz gero, txapelketa irabazteko aukerak izango ditugu”.



3D inprimagailua erabilgarri dute Durangoko Color Plus dendan

Zehaztasuna ardatz duten lanetarako ezinbestekoa da gaur egun 3D inprimagailua. Mekanikari dentistek, enpresa industrialek, bitxigileek zein edozein opari pertsonalizatu egin gura dutenek Durangoko Color Plus dendan dute beraien objektuak sortzeko aukera.



3D aplikazioak

- Industrialak: piezak, moldeak, prototipoak. Lana errazten dute, prozesua merkatu, eta gura beste proba egin daitezke produkzioari ekin aurretik, nahi den emaitza lortu arte.
- Mekanikari dentistak. Aplikazio industrialekin gertatzen den antzeko zerbait: hagineta erradiografia batetik piezaren moldea neurri-neurrira atera daiteke. Eskuz egindako igeltsuzko moldeen aldean denbora eta materiala aurreztu, eta prozesua bizkorrago amaitzen da.
- Bitxigintzan ere asko errazten ditu gauzak.
